



PRENTSA OHARRA: 2020.09.22

Etxepare Euskal Institutuak, Institut Ramon Llullek, Consello da Cultura Galegak eta Instituto Cervantesek hizkuntza aniztasunaren defentsan aurrera egingo dute

- Ostegunean bilera egingo dute Berlinen aipatutako erakundeetako arduradunek

Etxepare Euskal Institutuak, Institut Ramon Llullek, Consello da Cultura Galegak eta Instituto Cervantesek lan-bilera presentziala egingo dute ostegunean azken erakunde honen Berlingo egoitzan. Horrekin batera, mahai-ingurua antolatu dute –Youtube bidez ikusi ahal izango da- Espainiako Estatuaren errealitate eleaniztunari eta Europako hizkuntza-aniztasunari buruz.

Hizkuntzen Europako Egunaren harira antolatutako bi ekimenek eleaniztasuna sustatzeko eta Europan ikusgai egiteko estrategia koordinatuak ezartzea eta lau erakundeen arteko lankidetzaproiektuetan aurrera egitea dute helburu.

Goizean (10:30ean), bilera egingo dute Luis Garcia Montero Instituto Cervanteseko zuzendariak, Maria Jose Galvez Espainiako Liburuaren zuzendari nagusiak, Rosario Alvarez Consello da Cultura Galegako zuzendariak, Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak eta Silvia Gonzalez Institut Ramon Llulleko Alemaniako ordezkariak. Bilera horretan, epe motzera egingo dituzten ekintzak eta programak zehaztuko dituzte.

Arratsaldean (19:00etan), Berlingo Instituto Cervanteseko auditorioan **Comunicación y diversidad. El futuro del multilingüismo en Europa** (Komunikazioa eta



aniztasuna. Eleaniztasunaren etorkizuna European) mahai-ingurua egingo da. Jendaurreko saioa zuzenean eskainiko da Instituto Cervantesen Youtubeko kanalean.

Ignacio Olmos zentroko zuzendariaren ongietorriaren ondoren, Luis García Monterok, gaztelaniaren ordezkari gisa; Jordi Amat filologo eta idazleak, katalanaren ordezkari gisa (bideokonferentzia bidez); Juan José Álvarez Euskal Herriko Unibertsitateko katedradunak, euskararen ordezkari gisa; eta Ramon Villares historialariak, galegoaren ordezkari gisa hartuko dute parte, baita María José Galvez, Espainiako Liburuaren zuzendari nagusiak ere.

Amatek, Alvarezek eta Villaresek euren hizkuntzetan hitz egingo dute, eta euren hitzak gaztelaniara eta alemanera itzuliko dituzte. Dieter Ingenschay irakasleak moderatuko du eztabaida, eta Estatu espainiarreko errealitate eleaniztunaren gaiari ikuspegi alemaniarra emango dio.

Topaketa hauek hasiera batean Frankfurtoko 2020ko Liburu Azokarako aurreikusitako programazioaren barruan kokatzen dira (2021ean atzeratu zen covid-10a dela eta), eta jarraipena ematen diote maiatzaren 26an Instituto Cervantes, Institut Ramon Llull, Consello da Cultura Galega eta Etxepare Euskal Institutuaren lau aldeko hitzarmenari.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus